

ESTIBAUS

Boletín de ALTZAKO HISTORIA MINTEGIAREN Buletina nº 8 zbk. marzo 1998ko martxoa

"aiuntados en el campo de Estibaús según que lo havemos de uso de costumbre de nos juntar..." (Altza, 1390)

Aprendiendo a defender el patrimonio

Javi CASTRO

En Deba, desde 1964, existen tres Monumentos Provinciales, declarados como tales el 17 de enero (BOE nº 52). Uno de ellos es el humilde caserío denominado IRARRAZABAL.

Por los datos históricos consultados, documentos de archivos de Simancas, Oñate y Deba principalmente, el caserío actual es lo que fué antaño la lonja o anexo de la antigua torre de los Irarrazabal y se encuentra situado a escasos metros de donde se piensa que estuvo situado el solar de la desaparecida torre.

Hoy en día el caserío está protegido por la ley 7/1990 de Patrimonio Cultural Vasco y tiene la consideración de Bien Cultural Calificado, además posee la categoría de zona de presunción arqueológica por resolución del 23 de setiembre de 1997 de la Viceconsejería de Cultura del Gobierno Vasco.

Para hacernos una idea de lo que significó el linaje de la familia Irarrazabal para Deba y Gipuzkoa citaremos que ya aparece el primer representante del linaje a mediados del siglo XIV en la figura de Miguel Ibañez de Irarrazabal como «preboste». A partir de esta época el linaje adquiere gran importancia y es citado por los escritores clásicos tales como Lope García de Salazar, Lope de Isasti, Pedro Joseph Aldazabal y Carmelo Echegaray. Una extensa rama de comerciantes, ferrones, prebostes, alcaldes, constructores de barcos, etc.

En 1866 el debarra Venancio Araquistain, escribano, en el libro Tradiciones Vasco-Cantabras cita que durante la construcción de la nueva carretera (hacia 1856) se destruyeron los últimos restos de lo que quedaba de la casa torre añadiendo: "dejando como únicos recuer-

dos de su pasada grandeza, su histórico nombre cubierto de gloria en nuestros anales, y un caserío también llamado Irarrazabal, a causa sin duda de ser en tiempo atrás dependencia del castillo".


La existencia del caserío como tal está documentada a mediados del siglo XVI y en dos planos distintos (archivo de Simancas y archivo de Deba) coincidentes en el mismo año de 1783 se ve dibujado el caserío como «casería» y como «lonja».

El linaje pasó a Chile en 1555 y allí continuó ampliando la estirpe y consiguiendo numerosos títulos nobiliarios, Marqueses de Valparaíso, de la Pica, etc. Actualmente son más de 3.000 personas las que en Chile se sienten con ascendencia debarra manteniendo un fuerte arraigo con esta tierra.

Por falta de espacio no vamos a extendernos en la importancia de la historia y lo que representa hoy el caserío Irarrazabal para Deba, sino que, para que sirva de experiencia citaremos la forma y algunos hechos trascendentales de como se ha realizado en Deba la defensa del patrimonio cultural en la figura del caserío citado.

El inicio del problema comienza con la pretensión del Departamento de Carreteras de la Diputación Foral de Gipuzkoa (DFG) de construir un nuevo vial para evitar el paso a nivel del tren existente en la carretera de Deba a Mutriku. El citado departamento elabora un Anteproyecto (noviembre 1996) y NO CONTEMPLA la existencia del Bien Cultural (caserío Irarrazabal) citándose en una parte del documento que, «obliga a la demolición de la vivienda situada entre la carretera N-634 y el ferrocarril'. El edificio está habitado por dos familias (familias Oñederra y Laka) en régimen de inquilinos y tiene reconocido el derecho de compra de la propiedad.

(continúa en la pág. 2)



Zer dela-eta Debako gorabeherak Altzako buletin honetan? Deba ez dago Altzan, jakina, baina egia da ere han dauzkaten arazoak hemen ditugun berberak direla. Deban Irarrazabal baserriaren alde egiten ari diren lana miresgarria da eta, Altzako patrimoniao zaintzeko ahaleginean ari garenontzat, eredugarria. Hortxe ditugu Tomasene, Berra, Milles... baserriak, hiriaren mugan bertan, honen hazkundearekin gerta daitekeenaren beldur. Deban egin dutenetik badugu zer ikasi. Horixe baietz!

Este año el colegio SAN JOSE DE CALASANZ celebra su 25 ANIVERSARIO al servicio de los vecinos de Alza. 25 años en los que han sido escenario de la vida de miles de alumnos-as que hoy son padres y madres de las nuevas generaciones de nuestro centro. No podíamos tener mayor reconocimiento que éste.

*Desde estas líneas invitamos a todos los que han contribuido a hacer de nuestro centro la realidad que hoy es a una comida popular que tendrá lugar el 28 de Marzo y que estará amenizada por multitud de actuaciones.**

1940. urtean Altza auzoa gaur ezagutzen dugun baino haundiago eta zabalagoa zen. Auzoko eskolak, beraz, oso banatuta zeuden: Altza erdian, «escuelas municipales» delakoak genituen, alde batetik; eta bestetik, Buenavista auzoan, «unitarias» deitzen zirenak, «Villa Juanita»n aurraskola, Herreran Romualdo de Toledo ikastetxea eta abar. Sakabanatutako eskola txiki horiek elkartzeko asmoarekin SAN JOSE DE CALASANZ ikastetxeko sorrera bultzatu zen gurasoen laguntzari eta kemenari esker.

1973. urtean ireki zen eskola. Urte hartako zuzendaria, Constantino Amores Jauna, Iñaki Etxeberria Iñigo, gaurko zuzendari arte zerrenda luzea dugu ikastetxean lana egin duten irakasleak, Bernardo Salgado, M^a Jesús Abecia, Gregorio García, Enrique Hortelano, Beatriz Otaegi, Camilo Ocampo, Pilar Perea jaun-andreok besteak beste ditugu.

Handik gutxira, heziketan beste garai bateko ohiturak izan zirenak baztertzeko hasi ziren eskola berri eta euskaldun baten alde. Bide horretan jarri zen SAN JOSE DE CALASANZ ikastetxeko irakaslegoa. Poliki poliki eman behar ziren pausoak emateari ekin genion Altzako Euskal Eskola Publikoa izan gaitezen.

Aurten SAN JOSE DE CALASANZ ikastetxearen 25. urteurrena ospatzen da. Altza auzoan eskola nagusia izan denak 25 urteko bidea egin eta gero ospakizun hau zabaltzeko zenbait ekitaldi antolatu du: Peio Añorgak ekarritako ipuin-saioak, paiasoak, Albada Taldearen kontzertua, Apirilaren 26an Altzako frontoian eskolako haurrak prestatutako jaialdia eta Martxoaren 28 herribazkaria gure ikastetxearekin zer ikusia izan duten guztientzat. Lerro hauetatik bazkarira konbidatzen zaituztegu bertan gure eskolako liburua eskuratzea izango bait duzue.*



BAZKIDE TXARTELA - ¡HAZTE SOCI@!

Elkarrekin gehiago ahal izango dugu egin. Izan zaitetz ALTZAKO HISTORIA MINTEGIAren bazkidea.

Tú también puedes participar. ¡Hazte soci@ de ALTZAKO HISTORIA MINTEGIA!

La cuota anual es de 1.000 pts. / Urteko kuota 1.000 pezetakoa da.



Nombre y apellidos / Izen-abizenak:

Dirección / Helbidea:

Localidad / Herria:

Posta Kodigoa:

Telefonoa:

ALTZAKO HISTORIA MINTEGIA Lau-Haizeta, 21-3.ezk. 20017 ALTZA E-mail: altzakohm@eusnet.org

Lau Haizetako parkeaz

Mikel Telletxeak idatzitako artikuluari buruzko zenbait gogoeta

Aitor GARIN

Aurreko ESTIBAUSen - 7. zenbakia - Mikel TELLETXEAK sinatzen zuen artikulua sekulako harridura sortu zitzaidan. Harridura, ez bait nuen espero, gaur egun, eta holako tonoarekin, antzeko artikulurik.

Lau Haizeta ingurunearen inguruko gorabeherak betidanik eritzi kontrajarriak sortu ditu. Gogoan ditut orain dela zortzi bat urte, adibidez, Donostiako Udaletxeko zinegotziekin egindako batzarraldietan ze nolako eztabaidak eta kezkak agertzen ziren Martuteneko karreteraren hobekuntzaren inguruan, hilerriaren proiektuaren inguruan, baratzen inguruan, trikuarrien egoeraren inguruan, etab.

Gauzak horrela lekuz kanpokoa iraditzen zait artikuluan somatzen den «exclusivismo victimista» hori. Benetan, ez dut ulertzen. Zergatik ulertarazi nahi digu Mikelek Lau Haizetaren inguruko kezkak eta mota ezberdinetako borrokak Koordinadorearekin hasten eta jarraitzen dutela? Zergatik ahantzi urtetan zehar, modu ezberdinetan eta gai ezberdinen inguruan, hor egon diren beste ajenteez (baserritarrak, Altzako bizilagun askok, Alzta Historia Mintegia bera,..)? Eta are gehiago, zertara dator tonoa «victimista» hori? «Lau Haizeta koordinadora denen aurka ...? Mikel, kontuz medallekin!

Egia da Garberaren proiektuaren inguruan sensibilitate ezberdinak izan zirela, eta horren ondorioz, mota guztietako jarrerak eman zirela. Batzuk kontra, nahiko gutxi alde, gehienak nahiko pasibo... Eta egia da borroka horretan iraunkorki saltsan sartua ibili zen jendea Koordinadora inguruan zebilela, hasieran barruan, eta gero, batzuk barrutik eta heste batzuk kanpotik. Uste dut ezin dela ukatu

"...está fuera de lugar ese exclusivismo victimista que se percibe en tu artículo (v. ESTIBAUS 7). No lo comprendo. A qué viene querer hacernos creer que todo lo que se ha trabajado y luchado por Lau Haizeta comienza y termina en la Coordinadora? Por qué olvidar a esos otros agentes que a lo largo de años, en distintos campos y de diferentes maneras, han estado ahí (baserritarras, muchos vecin@s de Alzta, el mismo Alzako Historia Mintegia...? Más aún, a qué viene ese tono victimista? La Coordinadora Lau Haizeta contra todos? Mikel, cuidado con las medallas."

Koordinadorearen erreferenzialtasuna borroka horretan. Baina Mikel, hortik aipatzen dituzun zenbait gauzetara asko dago, gehiegi. Eta zenbait esaldietan, egia, ez da isladatzen.

Ez baita zuzena «Nadie, absolutamente nadie y sin excepciones, fue capaz de levantar la voz en contra de Eroski» esatea; ez baita zuzena "...todo para una misma zona, ya muy castigada, y sin que nadie la defendiera" esatea; ez baita zuzena "...máxime cuando ningún partido político apoyaba nuestro rechazo.." esatea; ez baita zuzena "algunos parece que nunca tuvieron tiempo para poder ir a una de ellas" esatea;...

Mikel, aipatzen duzun bezala, kritikek mina egiten dute. Egia da, eta

are gehiago ikusten duzunean saiatzen ari zarela. Baina lan egiten dugulako kritikak jaso ditzazkegu, eta gure burua prestatua egon behar du horiek entzuteko, eta baita, zergatik ez, asumitzeko, ulertzeko. Bidea ez da amorrua gordetzea eta gero, holako artikuluen bidez, dena botatzea.

Gure gizarte honetan pasibokeria, pasotismoa, nahiko indartsua da; botere ezberdinetik horrelako jarrerak ere bultzatzen dira, eta horrelako arazoak sortzen direnean jendea ez da inplikatzeko, ez da jabetzen ere arazoaz. Errealitatea horrela da eta askotan lehenengo lana gizartea sensibilizatzea izan behar du. Gutxienez saiatzea.

Lau Haizetaren inguruan zenbait arrisku desagertu omen dira, eta zenbait lorpen ba omen daude, baina Mikelek adierazten zigun bezala, dena ez dago eginga edo lortua, ez. Eroski, tamalez, hor dago; eta Plan Berezia ere, baina... egin beharreko horiei jarraipena egin behar zaie; Lau Haizetatik, nahiz eta "Parkea" izan, AHT bezalako erokeri eta basakeria pasa arazi nahi dute; Harrobiaren errealitatea hor jarraitzen du;.. eta Parkea beraren inguruan zenbait zalantza sortzen zaizkigu.. Ez, ez da gaia bukatu. Eta egiteke dagoen lanerako gogoak eta indarrak bildu behar dira Mikel, oraindik gaur; baina hori ez da lortzen erabili duzun "tono revanchista" horrekin.

Lau Haizetako ingurunearen etorkizuna ez dago oraindik ziurtatua Mikel. Parkearen figurak berak hutsuneak ditu. Horrek lana egiten jarraitzea eta sakontzea eskatzen du. Saia gaitezen esfortzu amankomunetik abiatzea, bestela.. ze parkea?

Gaizki esanak barkatu eta ondo esanak kontutan hartu! *

Argitarapen honen edizioko laguntzailerak:

En la edición de esta publicación colabora:



fundazioa
fundación